


HAU



HAU

HAU PITTU HAU-Euskaldunon konpartsaen aldizkaria 2.Zik. 1997.eko Urtaila-Abuztua

Bilboko euskadunok ba dugu zer ospatu: HAU PITTU HAU: 1.987-1.997, ZORIONAK

Duela 10 urte sortu zen Aste Nagusiko lehenengo konpartsa euskalduna.

1987eko Aste Nagusian agertu zen Bilbotarren aurrean bigarren aldiz *HAU PITTU HAU - Euskaldunon Konpartsa*, aurrenekoa urte hartako ihauterietan izan zelarik. Lehenengo aldiz Marijaiaren jarraitzaile euskaldunok euskara hutsez aritzen zen konpartsa batekin gozatzeko aukera eduki zuten.

Ordurarte Aste Nagusia jai herrikoia izan arren euskararen arloan hutsune galantak zituen, hau da, euskararen erabilpena

txikia zen batzutan ezezaguna zelako eta bestetan lotsa edo ohitura faltagatik.

HAU PITTU HAU urteetan zehar hutsune hori betetzen saiatu da, bai euskararen aurkako erasoak salatzeko (jaietan ere bai), bai euskara gorainatzeko eta euskaldunak arrotzeko.

Gaur egun, zorionez, ez gara Bilboko konpartsa euskaldun bakarra, hor baititugu *HOR DAGO* eta *ALGARA*, gure bide berdina hartu duten beste bi konpartsek.

Argi dago hamar urte hauetan euskarak aurrera egin duela, orain hamar urte bakarrik batzuen buruetan zegoen hainbat gauza gaur normaltzat hartzen baitugu, baina oraindik Aste Nagusiarri eta Bilbo berari euskaldunak izateko bide luzea gelditzen zaie, beraz ekin diezaiegun...

LOTU ZAITEZ *HAU PITTU HAU*-ri eta aurten uholdeak edukiko ditugu,

EUSKARAREN UHOLDEAK.

HAU PITTU HAU euskaldunei: Urgainezta dezagun Bilbo jai eta euskaraz...2.orrial.

.....
Jai euskaldunak pasatzeko 10 urrats...2.orrial.

.....
Aste Nagusia 97ren ekitaldiak eta hamarkadaren ospakizunak... 4.orrial.

Zertan gastatu aterako dugun 3.000 millioiak?

Aurten kristolako etekinak aterako dugunez, HAU...HAU-tik abioitxu bat erosteko proposamena luzatzen dizuegu. Lehenengo Euskal jeta...4. orrial.



HAU PITTU HAU Bilboko euskaldunei:

Urgaineztatu dezagun Bilbo jaiaz eta euskaraz.

Aurten Euskararen uholdeak.

Bilbon, 1983eko Aste Nagusian milaka ur litro jaso ondoren egundoko uholdeak izan ziren, hamalau urteren ostean Bilbo urgaineztatu nahi dugu baina itoko gaituena ez da ura izango euskara baizik

Euskaldunon Konpartsatik honako proposamena luzatzen dizuegu, bai euskaldun zaharrei, bai euskaldun berriei, bai euskaltegian ikasten zaudetenei, bai euskaraz bizitzeko asmoa daukazuen guztioi: Aurten Aste Nagusian euskara hutsez aritzea. Gure esku dago, Euskara Bilboko berezko hizkuntza dela erakustea, hura izan baita

mendeetan zehar gure kaletan barrena erabili dena.

Euskaldunok beti eduki dugu jaietarako egundoko zaletasuna. Herri zaharra eta alai gara eta gure hizkuntza kantatuz, dantzatuz eta ohikatzuz babesten dugu, guzti hori euskaraz egitekotan.

Bestaldetik Aste Nagusiak urtez urte inguruko herrietatik eta Euskal Herriko beste herrialdetatik jende ugariaren bisitaldia jasotzen du. Hauei ere luzatzen diegu gure deia, Bilboko berezko hizkuntza euskara den moduan are gehiago Euskal Herrikoa da, beraz Aste Nagusian euskaraz beldurrik gabe aritzeko eskatzen diegu.

NOLA LORTU EUSKARAREN UHOLDEAK ASTE NAGUSIAN
Edo nola ospatu HAU PITTU HAU-ren 10 urteurrena.

1. Aste Nagusiaren aurreko astean behin eta berriz errepikatu: «Euskalduna naiz eta arro nago»

2. Prestatu gorputza, 9 eguneko maratoi bat duzu aurrean, beraz kirol pixkat egin, sasoiaren egon.

3. Lagundu jaiak prestatzen. Gauzak ez dira berez egiten guztion laguntza ezinbestekoa da.

4. HAU PITTU HAU-ren partaide izan nahi baduzu deitu 4162730 telefonora edo etorri Dendarikale 9ra. Ahalik eta lasterren.

5. Behin Aste Nagusia hasita, dantzatu, abestu, ohikatu, ligatu, edan, jan, lan egin, borrukatu, lo egin eta mozkortu baina den dena EUSKARAZ.


6. Eguneroko ekiltadietara joan, zure gorputz gixajoak jasaten badu, baina batez ere Abuztuak 18an dugun Urtebetetze Jaiara. Egun horretan GUZTIOK EGON BEHAR DUGU.

7. Aste Nagusian dana ez da farra, euskarak dirua behar du, lagundu txoznan eta egin txanda batzuk.

8. Behin jaiak pasatuta lagundu txozna kentzen, lasai datorren urtean berriro montatuko dugu.

9. Euskal giroa mantendu urte osoan zehar, euskarak behar du eta.

10. Gora euskara, Gora Mari Jaia, Gora Aste Nagusia.





**ZEREN ZAI
ZAUDETE**

HAU PITTU HAU

**KONPARTSAKO
KIDE IZATEKO?**

HAU PITTU HAU




Euskaldunen Konpartsa

ZATOZTE!

**GURE TELEFONOA:
416 27 30**



ZERTAN GASTATU ATERAKO DUGUN 3.000 MILLIOIAK?



Ez da txantxa, 3.000 milloitik gorako etekinak lortuz, zergatik ez dugu abioi bat erosten?, Hiru modelo ezberdin proposatzen dizuegu, klasikoa, rantxera, eta deportiboa. Hori bai gutxiago ateratzen badugu paperezko egazkin lehiaketa bat egingo dugu. (Hasi papela prestatzen).

HAU PITTU HAU -10 urteurrenaren ospakizunak

Ekintza batzordetik 10. urteurrenaren ospakizunen egitaraua egiteko orduan zera pentsatu genuen, Aste Nagusian ekintza ugari egiten direnez ezin da egitaraua gehiago kargatu, azken finean gizasemeak gara eta gorputzak atsedena behar du (ez dugu inor drogatan erortzerik nahi, alkohola eta txirriak izan ezik). Beraz ospatzeko erarik hoberena urtero burutzen diren ekintzei giro berezi bat ematea da. Jaien hasiera dela?... , ba gu han «Zorionak zuri» edo beste gauzaren bat abestean eta honela aste osoa. Jaietako gauzarik politena jai gogoa eta freskotasuna da, eta ospakizun honek horrelakoa izan behar du.

Dena den egitarau tinko bat eduki ez arren egun berezi bat bai izango da astelehena alegia, urtero egun horretan konpartsa bazkaria egoten da eta aurten ere baina gauza batzuk aldatuz. **Bazkari honetarako eta egun osorako HAU PITTU HAUkoak diren eta izan diren konpartsakide guztiei deia egiten diegu.** Bai zu, duela urte batzuk konpartsatik apur bat aldendu zarena etorri gurekin ospatzera. Bukatzeko jai horren gora beherak zehaztuko dizkizuegu:

- **Eguerdian bazkaria**, jai eguna denez ez dugu inork lan egiterik nahi eta bazkaria enkargatuko dugu eta apurtxo bat

ordaindu beharko da gastoei aurre egiteko, baina ez kezkatu 1000 pzta inguru izango baita.

- Bazkaldu ostean antzerkia eta jai edukiko dugu txozna aurrean, beraz bazkarira etorri ez bazara etorri bazkalondora, merezi baitu.

- Arratsaldean **bertso-trikikalejira** edukiko dugu eta honetara **GUZTIOK** joan behar dugu, aitzakirik gabe.

- Gauean txosna aurrean kontzertua eta gaupasa mundiala.

Oraindik gauza batzuk zehaztu behar ditugu baina lasai egon jakinearen gainean edukiko zaituztegu

Ekintza batzordea

HAU



HAU

HAU PITTU HAU-Euskaldunen kompartsean aldizkaria

2. Zbk. 1997.eko Uztaila-Abuztua

INFORMAZIO ORRIA

Ale honetan HAU...HAU berezia da, izan ere lau orri gehiago ditu. Honen zergatia Aste Nagusiaren hurbiltasuna da. Hemendik pisutik ahalik eta lasterren agertzeko deia luzatu nahi dizuegu, guztion laguntza beharrezkoa da eta. Gainera, zer egiten duzue etxean etzanda egun osoan?, ez duzue esango ondartzan zaudetela egiten duen eguraldiarekin. Hartu ordu erdi, irakurri aldizkari osoa, alztatu eta abiatu Dendarikale 9ra, hor gaude jotake lanean. Beno, uzten zaituztegu jada zer ipini ere ez dakigu eta.

.....

BA AL DAGO INOR KANPOAN ?

Hau...Hau-ren bigarren alea dugu hau eta oraindik ez dugu ez zuen gutunik ez zuen berririk jaso. Irakurtzen al duzue ?, aldizkaria dioenak txorrada galantak dira edo aldiz Egunkaria sortu zenetik irakurri duzuen gauzarik zoragarriena da. Aznarrek behatzen artean kristolako hazkurea ematen dion perretxiko kolonia bat al du ?. Ascesión Pastorrek 36ko gudari batekin amodiozko historia bat al du ?.

Ba sentitzen dut horrelako galderak erantzuten ez badituzue, jarraituko dugu zuen bizitzan sartzen, edo Aste Nagusi hartan egin zizuten argazkiak publikatzen, ez dugu kupidarik edukiko...Erantzuiguzue **kabroiak!**



EKAINA EZ DA UZTAILA.

Hau...Hau-ren lehenengo hankasartzea ere eduki genuen. Uztailak 19 zioen lekuan Ekainak 19 ipini beharko zukeen. BARKATU, saiatuko gara gehiagotan ez gertatzen baina gertatuko da, ziur.

HAU PITTU HAU-ren lan eskaintzak.

Kaixo lagunak, urteroko moduan Aste Nagusiaren atarian gaude eta aurten ere lan izugarria dugu aurretik. Dakizuenez gure konpartsarren helburuak bi dira: Aste Nagusia ahalik eta euskaldunen izatea eta euskararentzako diru pixka bat lortzea. Honako orriaren helburua zera da Aste Nagusia antolaketa une honetan nola dagoen jakinaraztea eta laguntzeko kontaktuan nola, noiz eta norekin ipini behar zareten jakinaraztea da. Besterik gabe lan eskaintzen zerrenda bat aurkezten dizuegu, zuen zai gaude:

<p>Txosnaren muntaia:</p> <p>Abuztuaren 11an hasiko da baina mekanotuboaren enpresak montatzen digu egitura, beraz astearte arratsalderarte edo asteazkenerarte ez dugu jende asko behar izango Arenalean, baina bai beste leku askotan. Asteazken goizetik ahalik eta jende gehien behar izango da Arenalean bertan, batez ere toldoa ipintzerakoan eta ostiralean eta larunbat goizean (beldur gorriaren egunak). <i>Ref.: Aurten bai, barikuan txosna bukatuta.</i></p>	<p>Txosnaren desmuntaia:</p> <p>Hau bai dela jende ausardiaren lana. Dana bukatuta dagoen unea heltzen denean adorea behar da ohetik altzatzeko eta azkeneko ahalegin bat egiteko. Orain serio hitz egiten jendea behar da eta ez soilik igande gauean, astelehenean gauzak batu eta garraiatu behar dira, beraz komenigarria izango litzateke jakitea nortzuk egongo garen igande gauean eta nortzuk etorriko garen astelehen goizean erreleboa pasatzeko. Honetaz konpartsarren urrengo bileran hitz egingo dugu. <i>Ref.: Kamikaze</i></p>	<p>Toldoa:</p> <p>Aurten ze nolako eguraldia eduki dugun ikusita kalitate handiko toldo bat egin beharko dugu. Egundateko edo bi egunetako lana izango da, jakinearen gainean egoteko ipin zaitez Patriekin kontaktuan. <i>Ref.:Euritako atomikoa.</i></p>
<p>Elektrizitatea:</p> <p>Elektrikari bat behar da, txosna baten instalazioa egiten jakin beharko luke. Gure kandidatoaren perfila hauxe da: mutil ala neska euskalduna, bost karrerarekin, lau master, ingelesa, alemaniera, txinatarrak eta errusierarekin (frantsesa eta espainola ez dira behar). Bidali zure kurrikulum bitaia HAU PITTU HAU-ETT, Aitor edo Morotaz galdezka. <i>Ref: ELEKTROKUZIORIK EZ</i></p>	<p>Txandak:</p> <p>150 tabernari eta 50 sukaldari astebate lan egiteko behar dira. Euskara jakin behar dute, lan handia, ordu asko, soldatarik ez. Tira ba, ez sartu belarriak ur azpitan, denak dakizue zer diren txandak. Honi buruzko informazio gehiago edukitzeko informazio orri honetan edo Zaloataz galdetu. <i>Ref.: Zenbat da lau katxi, hiru solomo bokata, zortzi zurito eta lau kondoi? (Oharra: Honetaz ez gara inor libratzen)</i></p>	<p>Dekorazioa:</p> <p>Artista zarela uste duzu?, Leonardo da Binti edo Belazkezen parekoa?... Ba ez etorri, horiek marrazki bat egiteko urteak ematen baitzituzten. Erlojuaren aurka lan egin nahi baduzu stress giro batetan beste batzuk hilabetetan egingo luketena astebeten egiteko, gure pertsona zara. Lanpostu mugatuak daude zeren ez da jende asko behar talde on batbaizik. Bidalguzu «Guernica» irudiaren kopia bat neurri naturalean bulegora Eñauten izenean. <i>Ref.: Gugenheim Bilbado.</i></p>
<p>Propaganda:</p> <p>Marketin edo halako gauzetaz arduratuko den jendea behar da, pankartak egin, kartelak ipini, jende informatu eta halako guzak egiten lagunduko duen jendea behar da. Argazkilari bat edukitzea ez legoke txarto. Aldizkari honetan laguntzeko prest egongo direnak ere ongi etorriak izango dira. Honetan lan egiteko galdetu Pittutaz. <i>Ref.: Ba al dago inor hor kanpoan?.</i></p>	<p>Antzerkia:</p> <p>Antzerkirako jendea behar da, Aste Nagusiaren astelehenean antzerki bat egin nahi dugu eta antzezleak behar ditugu. Ez lotsarik eduki eta eman izena ahalik eta lasterren. Galdetu Iratxerengandik (Deustua). <i>Ref.: Izatea ala ez izatea, hor dago koxka...</i></p>	<p>Ekitaldiak:</p> <p>Aktibitate batzordeak 2000 konpartsakide behar ditu Aste Nagusiko ekitaldi guztiak betetzeko, hainbeste ez garen urteroko biderkaketa egin beharko dugu (ogi eta arrainen biderkaketaren mirariaren parekoa). Dena den hamargarren urteurrenaren ospakizunak antolatu behar ditugu hainbat gauzaren artean, eta horretarako ere jendea behar da. Informazio gehiagorako Abuztuaren 5an (asteartea) arratsaldeko 6etan bilera bat egingo dugu Jaunak Tabernan eta horretan ekitaldien gorabehera guztietaz hitz egingo dugu. <i>Ref. Zure urtetan, zure urtetan, itzali argi guztiak eta piztu kandelak...</i></p>

Ikusi duzuenez nolana hiko jendea behar da, artistak, elektrikariak, tabernariak, giroztaile soziokulturalak, eta abar. Esparru gehiago badaude baina Aste Nagusia egiten den guztia ipintzeko lekuri ez dugu. Jende guzti honekin kontaktatzeko **4162730** telefonora deitu edo hobe **Dendarikale 9tik** pasatu.

TXANDAK

Duela urte batzuk konpartsakide batek esan zuen moduan: «Txanda guztiak bete behar dira bestela goraino kakazturik gaude», esaldi jakintsua dudarik gabe. Txanden Koadroa alboan duzuen hori da. Bertan eguna, ordua eta behar den jende kopurua ikusten duzue. Honi buruzko zehaztapen batzuk egingo dizkizuegu.

- Talde bakoitzak ahalik eta txanda gehien egin behar ditu. EZ,EZ, EZ IKARATU, esan nahi dudana hauxe da: 12 pertsonako talde bat ba duzue gaueko txanda bat bete dezakezue baina arratsaldeko bi eta goizeko lau. Badakigu zure koadrilla oso elkartuta dagoela baina arratsaldelko 4etan ez dira 15 pertsona txosna barruan behar.

- Irizpide moduan konpartsakide bakoitzak hauxe egin beharko luke:

+ Gaueko bi txanda,

edo

+ Eguneko bi txanda eta gaueko bat.

Norbaitek hori baino gehiago egitera behartuta badago, eta tamalez egongo da, zerbait txarto egin dugulako izango da. Guztiok dugu Aste Nagusiaz gozatzeko eskubidea.


	<u>Larunbata</u>	<u>Igandea</u>	<u>Astelehena</u>	<u>Asteartea</u>	<u>Asteazkena</u>	<u>Osteguna</u>	<u>Ostirala</u>	<u>Larunbata</u>	<u>Igandea</u>
	16	17	18	19	20	21	22	23	24
07:00		7	3	3	3	3	5	7	7
13:00									
13:00		3	3	3	3	3	3	3	3
18:00									
18:00	8	6	6	6	6	6	8	8	6
23:00									
23:00	13	10	10	10	10	10	13	13	
03:00									
03:00	13	10	10	10	10	10	13	13	
07:00									

Honi buruzko zehazpen gehiago txosnan egongo diren arauetan eta Abuztuaren 4 ean emango dira.

DANOK BATERA: HUTSUNERIK EZ!!!!

HAU PITTU HAU

Abuztuaren 4ean
Morga Tabernan
arratsaldeko 6etan



BILERA
HAMAR
URTE

HAU PITTU HAU